

**EMAKUME ETORKINEN ZOR AMAIEZINA:
NAZIOZ GAINDIKO BEGIRADA
EUSKAL HERRITIK,
PANDEMIAREN ONDORENGO MUNDUAN**



Kredituak

Ikerketa eta idazketa: *Silvia Carrizo Fernández*

Metodologia: *Florencia Vivone y Silvia Carrizo Fernández*

Kolaboratzaileak: *María Mirtes Reis eta María Paz Giamabastiani*

Maketazioa eta inprimaketa: *A3 diseinua – inprimatzea*

Itzulpena: *Bakun Itzulpen eta Argitalpen zerbitzuak S.L.*

Edizioa: *Malen Etxea, Emakume etorkinen elkarte*

2021eko azaroa

Gipuzkoako Foru Aldundia – Berdintasun Zuzendaritza



AURKEZPENA

Nola berreskuratu eta berreraiki aurpegirik gabeko bizitza, zapaltzen eta ikusezin bihurtzen duen sistema baten zerbitzura dagoen bizitza, bizitzeko jaio zen bizitza, bidean milioika emakumek eta neskatok mundu osoan jasaten duten zapalkuntza-katearen beste katebegi bat bihurtu zena?

Malen Etxeak eta azterlan honetan parte hartu duten emakume guztiek hitzak, sentimendua, esperientzia eta arima jarri dizkiete bizitza merezi duten bizitza horiei guztiei. Ausardiaz egin dute, eskuzabaltasunez, katarsi-puntu indibidual eta kolektiboa eta errebindikazio-asmo handia duen ariketa batean.

Emakume migratzaileek migrazio-prozesuari ekiteko duten erantzukizunak eta indarrak larritasuna, bakardadea eta beldurra ekartzen dituzte askotan, eta ia beti erresistentzia, borroka eta ekintza konprometitu bihurtzen dira. Emakume ausartak dira, sistema kapitalista eta patriarkalaren aurka altxatzen direnak, sistema horrek ez baitie jaramonik egiten, baina, aldi berean, behar ditu; beren gorputz ikusezinetan oinarritzen eta eraikitzen den gizarte horren aurka altxatzen dira.

Azterlan honek lagundu digu ulertzen bizitza guztien balioa, erantzukizun kolektiboa, estatuen eginkizuna, tokikoaren eta globalaren arteko lotura anitzak, eta sistemaren parte garenon itsutasuna eta utzikeria erakusten ditu, eta, zergatik ez, axolagabekeria ere; izan ere, gure ekintzen bidez, eredu sozial eta ekonomiko bat elikatzen dugu, eta ezin gara horretaz harro egon.

Ezinbestekoa da agerian jartzea emakume migratzaileek jasan behar izaten duten zorra. Hitz soil batek duen konplexutasuna ulertzea esan nahi du horrek. Izan ere, haietako askok jasaten duten zor ekonomikoa ez ezik, gizarteak haiekin duen zor emozionala, familiarra eta ezinbestekoa ere badu bere baitan.

Emakume ausartak, borrokalariak, amets-eramaileak, eskubideak dituzten emakumeak, duinak, indartsuak, arduratsuak, konprometituak. Dagokiena defendatzen duten emakumeak, beren istorioetan murgiltzen direnak, batzuetan gogor eta astun bihurtzen den bizi-proiektu horri zentzua emateko. Beti aurpegia ematen ez dien errealitate bati, zintzotasunetik eta besarkada kolektibotik, hitzak eta irudiak jartzen dizkioten emakumeak.

Zuen borroketatik gertu sentitzen garenontzat oso inspiratzailea da, kargu-hartzea, ikaskuntza eta jarraitu beharreko adibidea.

Eskerrik asko partekatzeagatik.

Sofía Marroquín Guerrero
Zero Desberdintasun programa
Oxfam Intermón

**EMAKUME ETORKINEN ZOR AMAIEZINA:
NAZIOZ GAINDIKO BEGIRADA EUSKAL HERRITIK,
PANDEMIAREN ONDORENGO MUNDUAN**

SARRERA

Globalizazio ekonomikoak, garai hauetako identitate-zeinuak, aukera eman zuen ugalketa-eredu soziala planeta mailan eraldatzeko; izan ere, Hegoalde Globaleko emakumeen migrazioa, Ipar Globaleko ugalketa-lanetan sartzeko, lanaren banaketa sexual patriarkalaren adierazpen soziala, politikoa eta ekonomikoa da nazioarte-mailan. Hala, Hegoalde Globaleko emakumeak “lan-merkatuan” sartu ziren, menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko sektorean eta etxeko lanetan, soldata txikiekin, lan-esplotazioko baldintzetan, beren gorputzekin eta bizitzekin erantzunez Estatu poskolonialen abandonuari eta Europako Ongizate Estatuaren desegituraketari.

Migrazio-prozesu hori funtsezko aldaketa da emakumeen bizitzan; izan ere, lehen aldiz jaso zuten soldata bat, diru bat izan dezakete orain, bizitza osoan egin izan dutenagatik, muturreko gabeziekin eta familiaren eguneroko bizitza aurrera eramateko gutxieneko diru-sarrerak bermatu ezinik. Hala, “biztanleria ekonomikoki aktiboan” sartzeko urrats hori izan zen, halaber, bizitza epeka finantzatzeko sisteman sartu zituena, eta lortutako dirua zor bihurtu zen berehala. Ekonomialari feministek “ugalketa sozialaren *finantza-kolonizazioko* prozesu” gisa bataiatu zuten eredu hori, herri pobretuenak eta prekarizatuenak kokatzen baititu konkistatzeko lurralde gisa, eta beren eguneroko ekonomiarako zorraren mende jartzen baititu”¹.

Neoliberalismoaren lau hamarkadetak soldatak murriztu dituzte, lan-eskubideak ahuldu dituzte, ingurumena hondatu dute, familien eta komunitateen mantenurako energiak usurpatu dituzte, eta

¹ Federeci Silvia, Gago Verónica- Cavallero Luci “*Quién le debe a quién?. Ensayos transnacionales de desobediencia financiera*”

beren finantzak gizarte-sarearen bidez hedatu dituzte. Emakume pobretuen zorpetzea kapitalismo patriarkalaren beste estrategia bat da. 90eko hamarkadako politika neoliberalekin hasi zen, Nazioarteko Diru Funtsak eta Munduko Bankuak gidatuta, Latinoamerikako diktadurak amaitu ondoren sortutako gobernuei laguntzeko. Politika haien bidez, herrialdeek kredituak jaso zituzten Estatuaren pribatizazioaren kontura, GGKEen estrategiekin, haiek ahalduntze ekonomikoko programen bidez mikrokredituak sustatu baitzituzten gutxieneko baliabideak zituzten emakumeentzat, baina ezin izan zituzten itzuli. Hala, immigrazioan ikusi zuten zorrak ordaintzeko presioaren irtenbidea, eta, aldi berean, eremu pertsonalean, kudeaketa-porrota bezala bizi izan zituzten, lotsaz, eta ez ekonomia globaleko prozesu gisa, milioika emakume lanaren banaketa sexualaren nazioarteko merkatuan sartzeko diseinatua, gizonen eta Europako gizartearen beharrak asetzeko. Horrenbestez, analisisian ezin da ahaztu ekonomia globalaren politika neoliberalen ondorioak direla emakumeen migrazioen eragile, beren herrialdeetatik kanpo bilatu behar izan baitituzte diru-sarrerak eta soldatapeko lana .

Emakume etorkinak zorpetu egiten dira eguneroko bizitzako gastuak ordaintzeko; izan ere, lanarekin ordaintzen diete kapitalaren jabeek ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan bezala, hobeto ordaindutako langileentzako enpleguarekin ere, haiek beste batzuegan deskarga baitezakete ugalketaren erantzukizuna merkatu global handi honetan. Baina emakume etorkinen zorpetzeak eragin diziplinarioa du. Horregatik, emakumeen zorrez hitz egitea haien bizitzen eta gorputzen gaineko indarkeria patriarkal anitzez hitz egitea da.

Emakumeen zorrak, edozein prezioetan lan eginez, ezkutuko ekonomiak elikatzen dituzte, oinarrizko azpiegituren eta zerbitzuen gabezia ordezkatzeko dutenak; mendekotasunak indarkeriazko familia-harremanetara lotzen dituzte, autonomia ekonomikoa mugatzen dute, nahiz eta emakumeak berak izan diru-sarrerak sortzen dituztenak. Laburbilduz, “zorrak konpultsiboki malgutzen ditu onartu behar diren lan-baldintzak, eta, ildo horretatik, esplotaziorako tresna eraginkorra da, obedientziaren ekonomia antolatzen duena, eta hori indarkeriaren ekonomia da berariaz, horixe besterik ez”².

² *Cavallero Luci y Gago Verónica, Una lectura feminista de la deuda*

Horren harira, dokumentu honek Euskal Herriko emakume etorkinen baterako hausnarketa bultzatu zuen, honako helburu hauekin: langile atzerritar prekarizaturia izatea sistema kapitalistaren zati dela ulertzea; bizitzaren finantzaketa hori zer denboraz eta zer lanez elikatzen den erakustea, genero-aginduak finantza-betebeharrean nola finkatzen diren azaltzea, eta, horrela, makineria kapitalista hori agerian uztea. Izan ere, makineria kapitalista horrek gaur egun aukera ematen du emakumeak esplotatzeko, aldi berean, etxeko eta zaintza lanetarako langile gisa, kontsumitzaile gisa eta zordun gisa.

Malen Etxea elkarteak, emakume etorkinen zor amaigabea deitzen diogun horri buruz, egindako irakurketa hori lehen urratsa izan zen zorra desindibidualizatzeko eta denen aurrean azaltzeko bizitzeko zorpetzea ez dela gai pribatua, ez eta lotsatzeko arrazoia ere, etxekoandreak, etxeko buruak, langile etorkinak, haien amak eta ahizpak, auzo pobretuetakoak, baitira eguna kontuak egiten pasatzen dutenak. Lan feminizatuen erauzketa finantzarioaren eta balio-galeraren aurkako borroka bideratzeko erronka pentsatzen hasi beharra dago, bai eta Ipar Globalean bizi diren emakume etorkinentzat denbora berreskuratzeko eta liberatzeko ere.

METODOLOGIA

Ikerketa-lan honen eta gida pedagogiko honen abiapuntua izan zen emakume migratzaile horietako bakoitza ezagutzea eta haien ezagutza, praktika eta jakintza baloratzea. “Gure lanerako funtsezkoa eta aberastasun kolektiborako ezinbestekoa den jakintzaren gordetzaile” gisa hartu genituen emakume horiek (Díaz Prieto, 2016)

Proposatutako topaketen eta parte hartzeko dinamiken bidez, esperientzia, praktika, ibilbide eta mugimendu horiek bateratzea lortu nahi genuen, prozesu kartografiko eta kolektibo batean oinarrituta, migrazio-zorraren egitura agerian jartzeko.

Era berean, topaketa-prozesu horretan asmo handiz lortu nahi izan dugu, Gagok proposatutakoarekin eta egindakoarekin jarraituz (2014), agerian uztea nola lotzen diren finantza-ustiapena, existentziaren prekarizazioa eta neoliberalismo-moduak beheko mailatik, emakumezko langile migratzaile horiei dagokienez.

Nola egin zen

Topaketa horiek eztabaida eta sozializazioa gaitzea eta elikatzea nahi genuen, honako hauen inguruan: bizi-kostua, egoeren prekarizazioa, zorren sorrera eta handitzea, eta generoarekin eta emakume migratuen bizitza zeharkatzen duten indarkeriekin duen lotura. Topaketa horietan beste ideia bat ere sartu genuen, hau da, bizipen horiek nola lagun dezaketen eraldatzen, komunitatean eta taldean antolatuta, eta hori etorkizuneko itxaropenekin lotu daitekeen ala ez.

Proposatutako dinamikak Malen Etxeko bi kidek helarazi, zehaztu eta azaldu zituzten. Topaketa-prozesu osoan zehar “bideratzaile” eta sistematizatzaile rola bete zuten, hurrenez hurren, bi pertsona horiek.

Sarrera gisa, girotzeko eta elkar ezagutzeko dinamika ludiko batzuk egin ziren parte-hartzaileen artean, giro eroso eta atsegina sortzeko eta parte hartu zuten emakumeak elkar ezagutzen joateko. Ondoren, hurrengo dinamikarekin hasi aurretik, parte-hartzaile bakoitzari galdetegi inprimatu bat eman zitzaion, eta eskatu zitzaion 10 minutu hartzeko hura bakarka betetzeko.

Topaketaren garapena ludikoa izan zen, eta “*Zorraren jokoa*” izeneko mahai-jokoa erabili genuen. Joko horren bidez, euren jatorrizko herrialdearen egungo egoera bistaratu, sozializatu eta transmititu ahal izan zen, zor publikoaren eta pribatuaren arabera. Agerian geratu zen soldatak murrizteak, osasunaren eta hezkuntza publikoaren alorrean egindako murrizketek, lan-prekarizazio handiagoak eta langabeziak kolokan jarri dituztela familien ekonomiak. Era berean, mahai gainean jarri nahi izan zen nola aurkitu duten helmugako herrialdearen egoera, eta bien arteko lotura.

Parte-hartzaileak taldeetan bildu ziren, bospasei emakume bakoitzean, beren herrialdeen eta eskualdearen egungo egoerari buruz eztabaidatzeko. Talde bakoitzak material lagungarriak izan zituen. Talde bakoitzean, parte-hartzaileetako batek bankuaren eta Estatuaren rola bete zuen. Gainerako parte-hartzaileek langileen rola bete zuten, eta dadoak botaz laukietan barrena ibili ziren. Familia-ekonomien kostuen dimentsioa errazteko, jokoaren abiapuntuko diru-sarrerak bateratu egin ziren, eta herrialde bakoitzeko gutxieneko soldata hartu zen kontuan dolar estatubatuarrekin parekatuta. Moneta komun gisa dolarra aukeratu zen, jatorrizko herrialdeetan erreferentziako moneta delako, eta parte-hartzaileak harekin ohituta zeudelako.

Jokoaren helburua izan zen erakustea nola mugitzen diren familia-ekonomiak, bizirauteko estrategiak eta nola jotzen den mailegura eguneroko bizitzako beharrak betetzeko, beren jatorrizko herrialdean eta beren biografian etengabeko ariketa gisa. Zorrak eta ordaintzeko konpromisoak hartzen dira, esate

baterako, seme-alaben eskola ordaintzeko, bizi-kostua ordaintzeko, elikadurarako eta etxebizitza alokatzeko.

“**Zorraren jokoaren**” taulak bi ibilbide izan zituen, bata jatorrizko herrialdeari zegokiona eta bestea helmugako herrialdeari (Euskal Herria) zegokiona. Zirkuituan honako lauki hauek agertzen ziren: Osasunerako sarbidea (ospitaleratzea, analisi klinikoak, ebakuntza kirurgikoak, medikazioa, tratamenduak), Hezkuntzarako sarbidea (amentzako zaindegiak, haurtzaindegiak, eskolak eta unibertsitateak, eskolako materialak erostea), Elikadura (biltegia, supermerkatua, oinarrizko saskia), Etxebizitza (alokairua edo jabetzan erostea), Lurra eskuratzea (lurra erostea). Lauki horiek guztiak taula berean zeuden, bi herrialdeei zegozkien zirkuituetan. Migrazioa kudeatzeko laukia (bidaia-txartela erostea, dokumentazioa) jatorrizko lurraldeko zirkuituan zegoen, baita helmugakoan ere. Azken horretan “helmugako herrialdetik kudeaketak egiten laguntzen duten kontaktuak edo ezagunak” sartzen dira. Jatorriko herrialdean eta helmugako herrialdean “gertatutako egoerak” izeneko laukian, aurreikusi ez ziren egoerak bildu ziren, nahiz eta ez aurreikusi eguneroko bizitzan ager daitezkeenak, hala nola gaixotasuna, kaleratzeak, soldaten murrizketa, botiken erosketa, elikagaien prezioa igotzea.

Asmoa da elkarrekintza ludiko baten bidez ikusaraztea bankuek eta estatuek zor publikoen eta pribatuen sorreran duten eginkizuna eta transakzioak. Ondoren, taldeko eztabaida sortu zen, haren bidez kartografia kolektiboa egiteko. Horretarako, mapa planisferio bat jarri zen taldearen aurrean, eta eztabaidarako eta bateratze-saiora gonbita egin zen. Parte-hartzaile bakoitzak “Zorraren jokoarekin” nola sentitu zen azaldu zuen lehenbizi, eta,aldi berean, bideratzaileak orri batean oharrak hartu zituen. Honako ardatz hauen arabera antolatu ziren sortzen joan ziren ideiak, pentsamenduak, ezagutzak eta iruzkinak: ardatz *politiko-instituzionala* (legeria, eragin politikoa, etab.), *ekonomikoa eta soziala* (lanerako aukerak, lan eskubideak, lan baldintzak, kontratazio-baldintzak); *pertsonala, kolektiboa* (parte-hartze soziala, antolaketa komunitarioa).

Eztabaida egin zen bitartean, parte-hartzaileei gonbit egin zitzaien, beren borondatez, mapara hurbildu eta planisferioan islatzeko, nahi zuten moduan, honako kontsigna hau: “horrela joan nintzen,

horrela nago, horrela egon nahi dut”, beren biografiaren ibilbide hori ozenki adieraziz eta gainerakoekin partekatuz. Azkenik, sistematizatzailerak iritzien laburpena azaldu zion taldeari, beti ere zuzenketak, zehaztasunak eta ekarpenak egiteko aukerarekin, taldean adostutako ondorioak eduki ahal izateko.

Gida pedagogiko honetan lehen adierazi den bezala, proposatzen da hasitako prozesu honek eraldatzeko irekita jarraitzea. Parte-hartzaileek berek bultzatutako etorkizuneko topaketek eragin ditzakete eraldaketa horiek, edo beste gune aktibista, militante edo akademiko batzuetan eraman daitezke aurrera, tresna kolektibo berriak eraikitzeko.



EMAKUME ETORKINAK, TESTUINGURURA HURBILTZEA

Azaldu den bezala, diagnostiko honen helburua da emakume migratzaileak sistema kapitalista horretan nola txertatzen diren birpentsatzea, beren bizitzak hipotekatzeaz bestelako aukerarik ez baitie ematen, eta emakume horiek euskal gizartearen testuinguruan zer eginkizun duten zehaztea. Gako horiek Malen Etxeko bazkideen eta lagunen artean bilatu ziren, erakundearen ibilbideagatik, Gipuzkoako gizarteratzeagatik, bereziki Urolako mankomunitateetan, eta parte-hartzaileen profilagatik, kontuan hartuta haien jatorria, gizarte-klasea eta helmugan duten okupazioa, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakume etorkin guztien kopuru handi baten erakusgarri baitira.

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen lan-merkatuak emakume-profil nabarmena du, eta laguntza-sektore oso zehatz batean dihardute. Sektorre horretan, hiru lurraldeetan bizi diren 200.000 atzerritarren % 53 (guztizkoaren % 9,4) emakumeak dira, eta bitik bat etxeko lanak eta zaintza pertsonalak egiteko kontratatzen da”³.

Errealitate horri buruzko datu batzuek erakusten dute etxeko enplegua EBko biztanleria aktiboaren % 0,9 dela, eta Espainian, berriz, zifra hori % 3,25 igotzen dela.⁴ Euskal Autonomi Erkidegoan 263.000 lagun inguru bizi dira bakarrik; horietatik 112.531, 65 urte edo gehiagoko pertsonak dira, hau da, guztizkoaren % 43.⁵ Osasun Sailak agindutako “Zaintza informala Euskal Autonomia Erkidegoan” (2013) txostenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 115.559 lagunek, hau da, familia-

³ *Migraciones y genero en Euskadi y su entorno’ jornadas del Observatorio vasco de la inmigración Ikuspegi*, Bilboa 2018

⁴ *Fuente. Informe Esenciales y sin derechos. Oxfam 2020*

⁵ *Fuente: Eustat Panorama estadístico de las personas mayores. 2021*

etxebizitzetan bizi diren biztanleen % 5,3k beste pertsona baten zaintza behar du eguneroko bizitzako jarduerak egiteko. Horietatik, 77.580 lagunek egunero behar dute zaintza hori, hau da, 28.092 gizonak eta 49.488 emakumek.⁶ Errealitate horretan dago emakume etorkinen ehuneko handi baten gizarteratzea eta integrazioa.

Gizarte eta Zuzenbide Estatuaren antolaketatik sortutako Giza Garapenaren Indizearen (GGI) hazkundeak eta autonomien garapenak 80 urtetik gora jarri zuten bizi-itzaropena. Mende berriarekin, adinekoek beren autonomian eta erabakimenean errespetatuak izateko dituzten eskubideak sendotzen joan ziren, eta gaur egun, mendekotasun larririk ez badute, adinekoek erabakitzen duten euren zahartzaroa etxean igarotzea, beren ingurune afektiboaz inguratuta. “Hobeto etxean” ideia hori, Europan GGiren mailarik onenak dituzten herrialdeetako zaintzaren kalitate-estandar onenetan dagoena, esponentzialki indartu zen Covid 19ak zaharren egoitzetan izan zituen ondorio suntsitzaileen ondoren.

Gipuzkoaren kasuan, egoera horrek, sektorean errotuta dauden lan-gatazkekin batera, aniztu egin zuen zaintzaileen eskaera etxeetan. Gertatzen dena da, gizarte honetan, bereziki, mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzen direnean, enplegu duinaren balioa galtzen duela, eta gizarte kapitalistaren klase- eta genero-logikek bultzatuta lan baliogabe bihurtzen dela.

Beraz, Estatu espainolean eta Euskal Herrian, bereziki, lan-merkatuaren etnoestratifikazioa onartzen da arau gisa. Sozialki zehaztuta dago emakume etorkinek, edozein dela ere duten prestakuntza eta interesa, bizitzarako baliabideak sortzeko duten lekua ugaltze-lanetan dagoela: adinekoen zaintzan eta etxeko lanetan. Lan jakin horietan kokatze horrek eskarien norabidean gertatzen diren migrazio-mugimenduen logikari erantzuten dio. Mugimendu horiek logika politiko eurozentristarekin artikulatzen dira, nortasun historikoen herentzia, arrazaren ideian oinarrituta sortutakoak, rolen eta

⁶ Fuente :Análisis de la Encuesta de Salud de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2013

lekuen izaerarekin lotu zirenak lana kontrolatzeko egitura global berrian⁷. Hizpide dugun testuinguru honetan, sistema kapitalista-patriarkalaren logika hirukoitza islatzen da, generoa, klasea eta arraza, eta logika horretan guztiz normalizatua dago ugalketa sozialerako lanak emakumeek egin behar dituztela, eta emakume pobre eta atzerritarrentzako lana dela, ahal dela latinoamerikarrak. Logika hori da nagusi Euskal Autonomia Erkidegoan mendekotasunari arreta emateko politika publikoetan. Politika horrek aukera ematen du, onartzen eta diruz laguntzen du, miseriako soldatengatik, emakume etorkin bat asteko 7 egunetan 24 orduz lanerako prest eta enplegatzailearen zerbitzura egotea.

⁷ Quijano, Aníbal *Colonialidad del poder, eurocentrismo y América Latina CLACSO, 2014*


a) Emakume etorkinak eta haien erresistentziak

Eztabaidarako talde fokaletan parte hartu zutenak 29 emakume izan ziren, Malen Etxea Elkarteari lotuak. Adinari dagokionez, honela banatuta zeuden: parte-hartzaileen % 62k 31 eta 50 urte artean zituzten, % 33k 51 urte baino gehiago eta % 5ek 18 eta 30 urte artean. Ikasketei dagokienez, % 62k bigarren hezkuntzako ikasketak zituzten, % 29k goi-mailako eta unibertsitateko ikasketak eta % 6k oinarrizko ikasketak.

Hemen bizitzen zeramaten denborari eta jatorriko herrialdeei dagokienez, parte-hartzaileen % 48k 10 urte baino gehiago zeramatzaten Gipuzkoan, % 33k 3 urte baino gutxiago, eta % 19k 3 eta 10 urte artean inguruan bizitzen. Guztira 10 herrialdeetakoak ziren: Nikaragua, Honduras, Haiti, Kolonbia, Bolivia, Brasil, Argentina eta Txile Latinoamerikan eta Karibe, Ekuatore Ginea eta Maroko Afrikan.

Jatorriari buruz duten pertzepzioari dagokionez, parte-hartzaile gehienek adierazi zuten hegoamerikartzat, amerikartzat, mestizotzat eta jatorrizko herrien ondorengotzat zituztela euren buruak, eta hori logikoa da taldearen jatorriko osaeraren ondorioz. Hala ere, azpimarratu behar da, emakumeen % 29ren jatorrizko herriekiko identifikazio hori ez zegoela ondorengotza etniko, kultural eta tradiziozkoan oinarritua, herri horiek historian zehar kolonizazioaren aurka egindako borrokaren eta erresistentziaren aitortpen gisa baizik.

Nola ikusten duzu zeure burua jatorriaren arabera?



Erresistentziaren autokontzepzio hori indartu egiten da parte-hartzaileengan, honako hitz hauek aukeratu baitzituzten beren buruak definitzeko: *Borrokalaria, Menderagaitza, Arbola, Gotorlekua, Burugogorra, Indarra, Fedea, 100 aldiz irabaziko dugu, Benetakoa, Alaia, Hobetzea*. Taldearen ustez, beren itxaropenei eta betebeharrei erantzuteko beharrak bultzatuta, beren bizitzak mugiarazten dituen energia bihurtzen dira migrazio prozesuarekin batera doazen tristura, nostalgia eta min sentimendua. Batzuetan, talde jakin batzuek beste batzuekiko duten nagusitasunak markatzen duen alteritatetik abiatuta, ahultasun, otzantasun, eta ahalduntze-premia gisa identifikatzen da hori, baina emakume etorkinen kasuan kalteberatasunetik bertatik sortzen da erresistentzia.

Kasu horietan aipatzen den kalteberatasuna ez da gabezia ekonomikora mugatzen; aitzitik, ahultasun instituzionala, legala, soziala eta familiarra ere bada. Beraz, kalteberatasun dimentsioaniztuna eta kausa anitzekoa da. Horren harira, Paola Contreras eta Vanessa Alcades soziologoek gogora ekarri dute, oro har, kalteberatasuna eta erresistentzia aurkakotzat jotzen direla. Lehenengoa biktimizazioarekin eta gelditasunarekin lotuta dago, eta bigarrena, berriz, gizartea eraldatzeko faktore gisa ikusten da, eta, beraz, erdiesteak jarduten duen espazioan. Hala ere, migrazio-testuinguruetan jartzen garenean, “begirada dikotomikoa hautsi egin behar da, eta kalteberatasuna erdieste-gaitasuna eta, beraz, erresistentzia ahalbidetzen duen dimentsio gisa hartu”⁸.

⁸ Contreras Paola y Alcades Vanessa. “Mujeres latinoamericanas procesos de agencia en contextos de vulnerabilidad

“Erronka zaila da nire bizitzako 17 urte Nikaraguan utzi izana. Zaila da, baina ohitu beharra dago”

M. 18 urte, Nikaragua

“Ez naiz inoiz konformatu... nik egon nahi dudan tokian aukera bilatzea”

D. 34 urte, Nikaragua

“Nire bizitzako etapa honetan, irabazten ari naizela sentitzen dut. Sistematikoa izan naiz, irabazlea izan naiz”

J. 59 urte, Txile

“Batzuetan bakardadeak harrapatu egiten gaitu... bakardadeak eragin handia izan du nigan. Oraindik min egiten dit. Orain hemengoago sentitzen naiz. Lan-kontratu bat lortu dut”

L. 42 urte, Honduras

b) Jatorriko herrialdeak eta Estatu poskolonialen politika neoliberalak


Diagnostiko hau egiteko, parte-hartzaileen jatorriko herrialdeen egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa hartu zen kontuan: Nikaragua, Honduras, Haiti, Kolonbia, Bolivia, Brasil, Argentina, Txile, Ekuatore Ginea eta Maroko. Horiek guztiak kartografiatu ziren, herrialde bakoitzaren errealitateari zegokionez parte-hartzaile bakoitzak zuen begiradatik eta irakurketatik abiatuta. Beraz, aipatutako herrialdeetako datu ekonomikoak eta sozialak jatorriko gizarteetarako hurbilketa bat besterik ez dira, eskubide sozialak eta ekonomikoak (hala nola osasuna, hezkuntza eta etxebizitza) eskuratzeari dagokionez parte-hartzaileek duten ikuspegi subjektibotik begiratuta, giza eskubideen funtsezko zati baitira horiek.

Alde horretatik, bizi-kostuak garrantzi handia hartzen du oinarrizko saskiaren prezioa etengabe igotzen ari den herrialdeetan, bereziki Covid-19k eragindako munduko pandemia hasi zenetik. Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) arabera, 2020ko martxotik 2021eko irailera bitartean, oinarrizko saskitzat –esnekiak, zerealak, haragia eta abar– har daitekeenaren prezioak % 36,7 gora egin du mundu osoan⁹.

⁹ <https://elordenmundial.com/mapas-y-graficos/aumento-precio-alimentos-mundo/>

Elikagaien saskia koronabirusaren garaian

Elikagaien prezioa igo egin da 2020ko martxotik aurrera, pandemiaren konfinamenduaren ondoren (2014/2016 = 100)




Elikagaien kostu handi hori dela-eta, familiek diru-sarreraren proportzio handia erabili behar dute soilik elikagaiak erosteko. Errentaren zati handi bat hain oinarrizkoa den zerbaitetara bideratzean, aurrezteko edo inbertitzeko gaitasun gutxi edo batere ez dago, eta, horren ondorioz, ezin da inbertitu negozio osagarrietan, hezkuntzan eta prestakuntzan.

Herrialdeen arteko desberdintasunak eta parte-hartzaile bakoitzaren errealitateak, Gutxieneko Soldataren balioetan eta jatorriko herrialdeko oinarrizko saskiaren kostuan adierazi ziren ekonomikoki. Aurkitu dugun zailtasuna izan da oinarrizko saski guztiak ez daudela produktu berberetara osatuak. Oinarrizko elikagaiak honako hauek dira: azukrea, zerealak, esnekiak, olioak eta haragiak. Herrialde batzuetan elikagaien oinarrizko saskia osatzeko, bizitzarako beharrezkoak diren beste item batzuk ere erabiltzen dira: etxebizitza, zerbitzuak, arropa, osasuna, hezkuntza eta aisialdiko gastuak.

Horren harira, diru-sarreraren eta bizi-kostuaren arteko erlazioa islatzeko helburu bakarrarekin, gutxieneko soldaten eta oinarritzko saskiaren taula egin zen, eurotan adierazia. Datu horiek hobeki ulertzeko, kontuan hartu behar da parte-hartzaileen jatorriko herrialdeetan gutxieneko diru-sarrerak eskuraezinak direla ekonomikoki aktibo dagoen biztanleriaren ia % 40rentzat, biztanle horiek biziraupen-ekonomian sortzen baitituzte beren baliabideak.

Elikatzearen kostua munduan

Etxeko elikadurara bideratutako diru-sarreraren % (2018)



Gutxieneko soldatak¹⁰

Migrazio-prozesu bakoitza bizitako esperientzia pertsonala eta bakarra bada ere, ezin dugu aipatu gabe utzi emakume migratuen ehuneko handi batentzat emigratzeko arrazoi nagusia dela euren familiak ezin elikatu eta hezi izatea eta etxebizitza eta osasuna ezin bermatu izatea: seme-alabei, amei, aitei, bilobei, eta horregatik eusten diote egunero.

Herrialdea	Gutxieneko soldata	Oinarrizko saskia €
Argentina	285,39 €	591,81 €
Brasil	170,37 €	1.639,14 €
Bolivia	269,85 €	329,21 €
Txile	349,36 €	315,00 €
Kolonia	207,53 €	796,88 €
Ekuatore Ginea	178,79 €	457,25 €
Haití *	4,26	16,37 € *eguneko
Honduras	357,75 €	324,69 €
Maroko	209,49 €	1.422,00 €
Paraguai	285,00 €	132,91 €

¹⁰ Iturriak. Herrialdeetako gutxieneko soldataren eta oinarrizko saskiaren datu ofizialak, herrialde bakoitzeko hirugarren sektoreko entitateetatik hartuak, 4 laguneko familia-gastuetan oinarrituta, parte-hartzaileekin kontrastatuak

“ Ez zegoen jateko, eta etortzea erabaki nuen gure seme-alabak aurrera ateratzeko. Dirua, irabazi bezain laster sakabanatu egiten da, eta, batzuetan, ez dugu geuk jateko ere uzten. Gauza bat ordaintzen dugu, eta hurrengo hilean beste zerbait gehiago dago ordaintzeko. ”

A. 38 urte, Honduras

“ Nola egiten dudan? Ez dakit... pentsatzen du batek, ez dakit nola egiten dudan arazo guztiak konpontzeko, guztia estaltzeko, ezer gabe geratzen zara, baina pozik geratzen zara... guztiakin konplitu duzu, pixka bat bada ere. Nire mende daude: nire aita eta ama, nire bi anaiak, senarra eta nire seme-alabak ”

M. 40 urte, Nikaragua

ZORRAREN JOKOA BIZITZAN

Emakume migratzaileen bizipenak eta eremu askotan kokatutako esperientziak testuinguru historikoan, politikoan eta sozialean kokatu behar dira. Hartara, mugako lurraldeetan hedatzen den kidetasunaren berri izango dugu, euren identitateen espazialtasunean nola gauzatzen den jakiteko. Beraz, “agerian utzi behar dira emakume horien eremu askotako subjektibotasuna eta horrek beren esperientzietan dituen ondorioak”¹¹. Ikuspegi horretatik ekin genion sisteman biratzen duten emakume etorkinen bizitzetara buruzko hausnarketari, pertsonak miseriarik gabe bizitzeko aukera ematen duten eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak bermatzeko gauza ez diren estatuen porrota estaliz.

Alde horretatik, kontuan hartu behar den lehen elementua da parte hartu zuten emakumeen kasuan migrazioa ez zela borondatezko ekintza izan; aitzitik, sistema politikoaren porrotaren ondorioa izan zen, sistema hori bere herritarrei eusteko eta mantentzeko gai ez izateagatik. Beren herrialdeetako porrot sozial, politiko eta ekonomikoaren ondorio dira emakume horien migrazio-prozesu horiek guztiak, eta, horrenbestez, migratzea “anormaltasun” gisa ulertu behar da; izan ere, bere jaioterrietik beste toki batera aldatzea inoiz pentsatu ez duen pertsona bat, bere bizitza jarduera gutxi-asko tradizionalen bidez, bere ikasketekin eta bere ekinaldiekin, garatzeko asmoa duen pertsona bat lekualdatzera behartuta dago, beldurragatik edo arriskuagatik. Horrenbestez, “ikuspegi erradikal horretatik, badirudi aurrean duen dilema hondamendia edo basakeria izango litzatekeela”¹².

¹¹ Paola Contreras Hernández; Macarena Trujillo Cristoffanini. *Desde las epistemologías feministas a los feminismos decoloniales*

¹² ¿Migración o desplazamiento forzado? Las causas de los movimientos de población a debate Raquel Celis Sánchez Xabier Aierdi Urraza . Cuadernos de Deusto Derechos Humanos Nº81

“Anbientalista naiz, ingurumenaren eta giza eskubideen aldekoa, eta meatzarien ustiapenaren aurka nago. Horregatik nago hemen. Ez nuen inoiz pentsatu ere egin nire herrialdea uztea, nire 5 seme-alabekin”

L. 52 urte, Honduras

“ez nituen inoiz utziko, baina nire semeak esan zidan nahiago zuela ni ez ikusi hilda izan baino”

C. 52 urte, Bolivia

“Ez zegoen jateko, eta etortzea erabaki nuen gure seme-alabak aurrera ateratzeko.”

A. 42 urte, Honduras


XXI. mendean, emakumeen migrazio-mugimenduak munduko pobrezari emandako erantzun globalizatu gisa aurkezten dira. Pobrezia horrek neurritz kanpo eragiten die emakumeei, haien seme-alabei, eta migrazio-mugimenduak ugaritu egin ziren bizitzaren finantziarizazioaren ondorioz, familien zorpetzea izugarri handitu baitzen. Kontrol sozialerako modu gisa funtzionatzen dute tresna horiek.

“Ni asko kezkatzen ninduen zorrak, hipotekatu nuen etxea ez zelako nirea, aitarena baizik. Dinamika batean sartzen zara, zorrak ordaintzeko bakarrik bizi zara ia. Nik ez nuen ezer gastatzen, arropa erabilia janzen nuen, ez nuen kafe bat ere hartzen. Hiru urte inguru pasa nituen zorra ordaintzen. Zorreakin gatozen pertsonak ez gara bizi” G. 58 urte, Nikaragua

Hegoalde Globaleko emakume pobretuak lanaren banaketa sexual eta nazioarteko horren bidez sartu ziren lan-merkatuan; izan ere, kapitalismo patriarkalak banaketa hori finkatu zuen politika neoliberalen, espekulazioaren, Estatuko erakundeetako ustelkeriaren, eguneroko bizitzarako zorpetzearen eta Europako gizartearen ongizate-estatua desegituratzearen bidez. Testuinguru politiko horretan gertatzen da emakumeen mugikortasuna munduan, eta horretan oinarritzen da emakume migratuen giza eskubideen urraketa sistematikoa.


Tailerretan parte hartu zuten emakume etorkinentzat, migratu aurretik hasi zen prozesua da bizitzeko zorpetuta egotea, errentagarritasunik sortu ez zuten ekimenen ondorioz, bidaiatzeko eskatutako kredituen ondorioz, lehen urteetako baliabide guztiak kontsumitu baitzituzten, eta, aldi berean, handitu egin ziren etxebizitzaren, osasunaren, elikaduraren eta hezkuntzaren alorretako premiei erantzuteko pasiboak.

Parte hartu zuten emakumeen % 57k zorra egin zuten bidaiari ekiteko; % 83k finantza-zirkuitutik, familietatik eta lagunetatik kanpo egin zuen, berme gisa familiaren etxea zegoen lurrak utzita. 2020ko martxotik 2021eko uztailera bitarte, parte-hartzaileen erdiek baino gehiagok zorrak egin zituzten, eta kasuen % 33tan gastuen mailari eta sorterrira egin beharreko diru-bidalketei eusteko izan ziren. Zor-funtsen gainerakoa ikasketak ordaintzeko, etxebizitzak eraikitzeko, osasunerako, sorterriko zorrak ordaintzeko izan ziren. Horrenbestez, zorra egitea ugalketa sozialerako mekanismo bihurtu zen etxeetarako.



1. Leku bat munduan

Pertsona guztien bizitzan, norberaren espazioa da, hau da, etxebizitza, giza eskubideak erabiltzeko abiapuntua, Eskubide Ekonomiko eta Sozialen Batzordeak adierazi bezala, gogorarazten baitu etxebizitzak dakartzan gastu pertsonalek eta etxeke gastuek “oinarrizko beste premia batzuk lortzea eta asetzea eragotziko edo arriskuan jarriko ez lukeen maila izan beharko luketela”¹³. Emakume etorkinen kasuan, ondasun bat da, eta, beren seme-alaben hezkuntzarekin batera, migratzeko erabakiaren helburu nagusia da, eta, kasu askotan, kostu handiko helburu bihurtzen dena.




¹³ *Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales. Observación general N° 4: El derecho a una vivienda adecuada*

Etxebizitza mantentzeari aurre egiteko zorrak biderkatu egin ziren jatorrian eta helmugan; izan ere, zorra ez da soilik etxebizitza baten eraikuntzan inbertitzeko egiten, baizik eta kredituak hartzen dira helmugako gizarteetan etxebizitzak alokatzeko fidantzak ordaintzeko. Finantza-espekulazioaren beste modalitate bat da hori, sektore pobreei zuzenean eragiten diena, eta, azkenean, alokatutako etxebizitzaren alokairuaren balioaren % 2 eta % 3 artean ordaindu behar izaten diote bankuari hilean.

Etxebizitzari dagokionez, Gipuzkoan, parte-hartzaileen % 45ek onartu zuen “bazutela” bizitzeko etxebizitza. % 20rentzat, espazio hori lantokian zegoen, hau da, adineko pertsonak zaintzen dituzten etxeetan “bizi” dira; % 70a, berriz, alokatutako etxebizitzan bizi dira, eta gainerakoak ez du errentarik ordaintzen bizi diren tokiagatik. Gainerako % 55ak logela bat dute beren eguneroko bizitza egiteko, eta logela batean bizi direnetatik % 79,5ek eremu hori familiakoa ez den beste pertsona batekin partekatzen dute.

Etxebizitza ere kontuan hartu beharreko elementua da seme-alabak berriz elkartzeko tramitea hasten denean; izan ere, amak behar adinako diru-sarrerak izan behar ditu gutxieneko erosotasuna bermatua duen etxebizitza bat alokatzeko, eta berrelkartutako seme-alaben elikadura-, jantzi- eta ikasketak beharrak estaltzeko. Esan beharrik ez dago baldintza horiek ezin dituztela bete etorkin gehienek, euren soldatak ia ez baitira iristen lanbide arteko gutxieneko soldatara.



“2018an nire semea etorri zenean, etxebizitza bat hartu nuen alokairuen 850 eurotan, eta dena berria erosi behar izan nuen, urtebete eta sei hilabete eduki nuen. Nik barneko langile gisa jarraitzen nuen, eta ardura hori hartu nuen nire gain, eta oso karga handia izan zen irabazten nuen gutxirako. Hor jaitsi ziren nire diru-sarrerak; gure egoeran zaila da etxebizitza baten erantzukizuna hartzea”

V. 50 urte, Nikaragua

“Ezinezkoa da etxebizitza izatea gauza pila bat sakrifikatuta ere. Gure soldatek ez dute ematen lan egiteko eta etxebizitza batean bizitzeko aukerarik; lan asko egin arren, zorte pixka batekin partekatu besterik ezin dugu egin”

J. 59 urte, Txile

“dirua maileguz hartu nuen etortzeko, eta ahizpak kobratu egin zidan esanez senarrak dirua maileguz eskatu ziola bankuari, eta nik ez nuen nahi nire dirua kobratzen ibiltzea, eta esan nion “saldu ezazu etxea”, eta orain etxerik gabe eta zorrekin geratu naiz”

E. 45 urte, Nikaragua

2. Kontsumitzen diren bizitzak

Unibertsalizatu daitekeen etxeko ekonomien zorpetzearen subjektibotasunik ez badago ere, zordun/hartzekodun harremana, botere-posizioagatik ez ezik, desberdina da sexuaren, arrazaren, adinaren eta lekuaren arteko desberdintasunetatik ere, zorrak desberdintasunak esplotatzen dituelako, hainbat lurralde, ekonomia eta gatazkatan eraginda.


Ekonomialari feministek “ugalketa sozialaren finantza kolonizazio”¹⁴ gisa definitzen duten bizitzarako zor pribatu horrek, konkistatzeko lurralde gisa kokatzen ditu herri pobretuenak eta prekarizatuenak, eta emakume etorkinak –lehen azaldu den moduan– zorraren mendeko bihurtzen ditu eguneroko bizitzarako. Harreman horretan, igarotako denborak eta adinak eragin desberdina dute emakume etorkinen bizi-proiektuetan, baina egindako zorra zer sentimendurekin bizi duten zehazteko orduan, emozio nagusiak bakardadea, larritasuna eta estutasuna izan ziren parte-hartzaileen artean. Bakardade-, larritasun- eta estutasun-sentimendu horiek beldur bihurtzen dira, eta haren gainean egituratzen da gaur egungo eta etorkizuneko obedientziaren diziplina soziala, zeinak behartzen baitu modu indibidualean eta pribatuan onartzera sistema kapitalistaren doikuntzak jatorrian eta helmugako gizarteetan.

Premia ekonomikoengatik migratzen duten pertsonak abandonatu egiten dituzte beren estatuek. Hala ere, diru-bidalketen fluxuen bidez, tokiko ekonomiei eusten diete, eta diru-fluxu horiei ester

¹⁴ Federeci Silvia, Gago Verónica- Cavallero Luci “¿Quién le debe a quién?. Ensayos trasnacionales de desobediencia financiera

estaltzen dute oinarrizko giza eskubideak (osasuna, hezkuntza eta etxebizitza) betetzeko politika publikoen arreta falta, eta horrelakorik ez litzateke gertatu behar gizarte antolatu eta demokratikoetan. Etxeko ekonomien zorrekin agerian geratzen da giza eskubideen urraketa sistematikoa, eta emakume etorkinen kasuan ondorio fisikoak eta emozionalak uzten ditu. Gainprezio bat ordaindu behar dute bizitzeagatik, beren gorputzaren eta indarren esplotazioarekin ordaintzen dutena, besteen bizitzarako, bakoitzarentzat “nireak” direnak. 2017an, Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak (MNE), bere oharpenetan, agerian utzi zuen migratzaileen zorpetzeak etxeko ekonomiarako duen kostu gehigarria, langile migratzaileei eragiten dieten ondorio emozionaletan eta psikologikoetan islatzen dena.

Nola sentitzen zara zorrari dagokionez?



“ nire bizitzako urte askoan, besteengan pentsatzeagatik, motxila oso astuna eraman nuen bizkarrean, eta epe luzera fisikoki eta emozionalki eragin dit. Konturatu nintzen nire bizitza osoa besteei laguntzen aritu nintzela ”

G. 58 urte, Nikaragua

“ Irabazten dudanarekin badakit, egunen batean lanik ez badut, hemen ezin izango naizela bizi. Orduan, joaten baldin banaiz, beldur hori daukat, han ni ezingo nintzela bizi, ez naizelako iritsiko. 12 urte kanpoan igaro ondoren han ez daude nire zain lan batekin. Nola biziko naiz? ”

K. 42 urte, Nikaragua

“**Zorraren joko**” honen bidez, arazo komun bat agerian utzi nahi nuen, zorra desindibidualizatu eta emakume migratuen gorputzean eta bizitzan ezartzen den indarkeria sistemikoa eta matxista azalerarazi. Indarkeria hori hainbat alderditan nabari da termino politikoetan eta ekonomikoetan: mundu osoko gizarte-babeseko sistemen desegituraketan eta langile migratzaileen bizitzaren prekarietatean. Eremu pertsonalean, berriz, bakardadea da, tratatu txar psikologikoa, oro har, migrazio-testuinguruetan emakumeen erresistentzia eta erresilientzia mugiarazten dituen sugarra.

Erresistentzia parte-hartzaileen artean izendatzaile komuna bada ere, aipatu behar da lanaren banaketa sexuala eta nazioartekoa zuzenean lotuta dagoela emakume etorkinen jatorrizko herrialdeetan indarrean dagoen gizarte patriarkalak esleitutako rolen betikotzearekin. Tailerretan parte hartu dutenentzat, **emakumea-ama-sakrifizioa-leialtasuna** osotasun banaezina da gizartearen eraikuntzan, eta horrek areagotu egiten du zorpetuta bizi diren bizien kostu emozionala.

“ *Merezi du sakrifikatzea hemen zauden bitartean, badakizulako zureak ondo daudela han* ”

K. 42 urte, Nikaragua

“ *Ametsak, gure harremanak, galtzen dira. Ni orain dela gutxi etorri naiz, eta senarrak esan dit Espainiara etortzen diren emakume guztiak gizon bila etortzen direla.* ”

A. 42 urte, Honduras

“ *... uste dut guztia erlatiboa dela. Zein da alde handia hemen? Hemen egunero lana badugu, gure familiak ondo daudela, maitasuna falta zaien arren, eta hori guztia gu ez gaituztelako eurekin* ”

L. 52 urte, Honduras

IMMIGRANTS WOMEN'S LIVES MATTER. EZTABAIDEN ETA AUKEREN ARDATZAK

Tailerren hirugarren unea izan zen hausnartzea non eta nola aurkitu gorpila geldiaraziko duen proiektu pertsonal, familiar edo kolektibo bat aldaketetara egokitzeko ahaleginen artean, beti bi denbora eta espazioren artean bizitzean, behin betikoaren eta iragankorraren arteko dualtasun konstante horretan, emakume etorkinen bizitza helmugako hirietan hiru eremu desberdinetan jokatzen denean: a) eremu ekonomikoa, lan-abusuaren, -esplotazioaren eta -prekarizazioaren inguruan bira egiten duena eta merkatu segmentatu eta etnifikatuan biltzen dena; b) eremu politiko-instituzionala, irregulartasun administratiboaren eta eskubideen murrizketaren bidez adierazten dena, eta c) eremu sinbolikoa, estereotipoen, aurreiritzien eta homogeneousazioaren, ukazioaren eta indarkeriaren bidez egituratzen dena. (Contreras Alcaides, 2021)

Guztien iritzia zen prekariedade handia dagoela emakume langile etorkinen bizitzan, non rol tradizionalak eta patriarkalak betiketoeak prekariedadearen edo bizitzearen artean hautatzeko aukeran jartzen baititu. Puntu horretan, zeharbide intersektionalak erabakigarriak dira, kontua ez baita ekonomiaren sektore berean lan egiten duten bertako langileei eragiten dien lan-prekariedadea, baizik eta zaintza-zerbitzuetan lan egiten duten langile etorkinei sufrimendu gehigarria ezartzen zaiela, hala nola beren bizitzak kontrolatzea, mugimenduen murrizketa, askatasun eza familia enplegatailearen aldetik, langile-klasea izanik ere, zalantzan jarri gabe hartzen baitu sistema klasiko kapitalista eta liberalaren rol patronal-feudala. Adineko pertsonen laguntzeko langile etorkinen kontratazioan nagusi den sektore horrek ez ditu langile atzeritarrak eskubide berdinak dituzten langile gisa identifikatzen, eta arrazoa aurpegian dago, haien jatorria identifikatzen duten ezaugarri etnikoak dira, bertako gizartearen imaginario kolektiboan botere kolonizatzailea suspertzen baitute.

1. Sakrifizioa- prekaritatea - bizitzaren jasangarritasuna

Lehenengo eztabaidak honako ardatz honi buruzkoak izan ziren: **sakrifizioa – prekaritatea – bizitzaren jasangarritasuna**, hauxe da zer gertatzen den kontsumitutako bizitzekin esplotatzeko gorputzik ez dagoenean, eta sistemak aurrean eraman dituen belaunaldi bat bestearen atzetik: amak eta alabak. Migratzen duten emakumeen bizitza zorpetuta dago jaiotzen direnetik. Emakume horietako batzuek amaren ugalketa-bizitzak zor dituzte, 16 urterekin ahizpak eta anai-arreba zaharragoak zaintzeko ardura hartzen dutenean, estrategia ekonomikoaren zati gisa. Estrategia horrek amaren gorputzaren nazioz gaindiko esplotazioa behar du seme-alaben bizitzari eusteko baliabideak ziurtatzeko. Kasu askotan, nerabe horrek utzi egiten dio ikasteari sistemak ezarritako rol hori bere gain hartzeko; sistemak egungo eta etorkizuneko baliabide guztiak kontsumitzen baititu Ipar Globaleko kapitalismoa elikatzeko. Izan ere, nahiz eta amaren ahaleginak unibertsitate-ikasketak bultzatu, beren bizitzen zikloa ez errepikatuko ilusioarekin, karrerak bukatzen dituztenean migratzea izaten da duten aukera, beren amen lan berdina egiteko: zaintza-zerbitzuak, Hegoalde Globaleko emakumeen esplotazio-kate globalei beste maila bat gehituz.

“ nire bi alabek karrerak dituzte, baina hona ekarri behar izan nituen, nire herrialdean ezin delako, berdin jarraitzen du. Nire etxea egin nuen, baina nire alabak, bat hemen dago eta beste Estatu Batuetan ”

C. 42 urte, Nikaragua

Ildo horretan, kontua izan zen ulertzea langile etorkinen bizitzek zein unetan uzten dioten euskal ugalketa-sistemaren ordezkoko pieza izateari eta noiz pasatzen diren bizitza jasangarria izatera. Puntu horretan, adina izan zen tailerretako parte-hartzaileen arteko desberdintasuna markatu zuen elementua; izan ere, 50 urtetik gorakoan artean bizirautea ardatz hartuta bakarrik pentsatzen da bizitza, sentitzen dute bizitza jasangarriak dituztela lan egin dezaketen bitartean eta “enplegu segurua” mantendu dezaketen bitartean. Kezkak areagotu egiten dira dauden bizi-zikloaren arabera, adinagatik, osasunagatik eta igarotako urteengatik sorterrira itzultzea lauso bihurtzen denean etorkizunean.

“Nire bizitza prekarioa da beti enplegu anitzekin, zorpetuta jarraitzen dut, etxebizitzarik gabe, lanean, eta beti izan da bizirauteko. Horrek ezintasunez betetzen nau, lanerako indarra eta gogoia ditut, baina amorrua ematen dit aurrera ezin egin izateak; orduan “tetrax” baino ez dut egiten, irauten eta bizirik irauten ikasi genuen”

I. 56 urte, Argentina

“Beti nago abiapuntuan, hemen ez dut ezer aurreratu. Birpentsatzeko etapan nago, nire bizitzaren arazoa konpondu behar dut, neure gain hartu behar dut, nire seme-alabena konpondu dut”

J. 59 urte, Txile

35 eta 45 urte bitarteko emakumeentzat, seme-alaba txikiak dituztenentzat, bizitza jasangarria da familian, eta, beraz, beren herrialdera itzuli eta nekazaritzako edo merkataritzako ekoizpen-proiektu bati ekitea da urte gutxiren buruan bete nahi duten helburua. Gazteenek, berriz, familia-kargarik ez dutenek, zalantzarik gabe esan zuten bizitza jasangarria hemen dela, baina argi dute ez dutela euskal zaintza-sistemaren engranajea izan nahi. Ekonomiaren beste sektore batzuetan lan egin nahi dute, lan-eskubideak dituzten enpleguetan eta zortzi orduko lanaldiarekin, hemengo beste edozein pertsonak bezala bizi nahi dute.

“ nik nire herrialdera joan eta nire negozioa jarri nahi dut. Batek, administratzen dakienean, biziraun dezake. Nire negozio-idea da oilasko-haztegi bat jartzea. 10.000 euro negozioa jartzeko eta nire seme-alabekin biziraun ahal izango dut ”

M. 35 urte, Nikaragua

“ Nire ideala da Donostiako ospitale batean erizain gisa lan egitea, eta pentsatzen dut 50 urte baino gehiago izatean bestelako bizitza izango dudala. Ez dut zuen bizitza izan nahi (50 urtetik gorako emakumeena), beste zerbaite nahi dut nire bizitzarako ”

A. 26 urte, Nikaragua

“ Beste batzuk bidea irekitzen ari dira, 50 urte baino gehiago izatean bizitza hobea izan dezadan. Ez dut seme-alabarik. Batek zenbateraino konpondu behar du gurasoen bizitza? Nire ideala da Diario Vasco egunkariko ekonomiako erredakzio arloan aritzea, kazetari lanetan ”

D. 30 urte, Nikaragua

2. Kontzientzia - beharra. Kontzientzia eta inkoherentzia

Hurrengo eztabaidetan, langile etorkinen kolektiboa Euskal Herriko Mugimendu Feministarekin nola erlazionatzen den aztertu zen. Mugimendu hori beren aldarrikapenen zuzeneko aliatu gisa identifikatu dute. Puntu honetan, **kontzientziaren edo beharren eta kontzientziaren edo inkoherentziaren** artean planteatu zen hautabidea. Parte-hartzaile guztien ustez, zalantzarik gabe, feministak dira funtseko aliatuak, eta langile etorkinen egoera agenda publikoetan zaintza-zerbitzuetan jartzen lagun dezakeen sektore politiko bakarra. Izan ere, atzerritarra izatea bera egoera politikoa gainditzen ez duen mugatzat hartu zen, eta, beraz, emakume langile etorkinek Eusko Jaurlaritzan eta Espainian izan dezaketan eragin politikoa eskasa da, eta zuzenean lotuta dago atzerritarrentzako eskubide politikoen gabeziarekin.

Eztabaidaren muina izan zen onartzea azken hamarkadan Mugimendu Feministak ahalegin eta lan handia egin duela emakumezko langile etorkinek zaintza-zerbitzuetan duten egoera ikusarazteko, ikusten baita ezinezkoa dela zaintzak antolatzeke eredu horrekin jarraitzea, baina, hala ere, ez da iristen agenda feministaren lehentasunezko gai izatera, ez eta euskal ezkerreko koalizioaren agendarena ere. Giza Eskubideen urraketa sistematikoak eta euskal zaintza-zerbitzuetako lan-esplotazioak filosofikoki aliatuak diren sektoreetan indar eraldatzailerik ez lortzeko arrazoiei dagokienez, bere familiako adinekoaren arreta estalia izateko “beharra” aipatu zen. Parte-hartzaileentzat, sektore horiek, euskal gizartearen gainerakoek bezala, merkatu libre globalizatuan bilatzen dute irtenbidea, nahiz eta beren printzipio etikoekin eta politikoekin kontraesanean egon.

Horren harira, aldarrikatu zuten barneko lana desagerraraztearen gaiak lehentasuna izan behar duela Agenda Feminista Komunean, eta herrialde honetako herritarrek jarri behar dutela gai hori agenda politikoan, botoa emateko eskubidea dutelako. Gogoratu zuten ahotsa emakumezko langile etorkinena dela, ez dabiltzala tutore bila, baizik eta aliatuak, emakume etorkinen giza eskubideen urraketaekin amaitzeko, demokratikoa eta sozialki bidezkoa izan nahi duen gizarte batean.

“...kontzientzia komatxoan artean, foro batean kontziente dira, hor esaten dute eta ikusten dute prekarioak garela, baina kontzientzia hitzezkoa da. Bada teoria, baina ez da praktikara jaisten”

G. 56 urte, Nikaragua

“Ez dago koherentziarik kontzientzian. Jabetzen dira, baina norbait behar dute irabazten dutenaren erdia edo gutxiago ordainduta ama 24 orduz zaintzeko, ez baitiote beren bizitza antolatuari uko egingo zaintzeko. Eta hor dago pertsona ikusezin hori, bizirik irauteko sakrifizioa egiteko beharra duena”

I. 56 urte, Argentina

Errealitate hori eraldatzeko aukeren eremuan, langileengan eta kolektiboan oinarritu ziren aztertze-ikuspegiak. Lehenengoan, adierazi zen prestakuntza- eta laguntza-premia dagoela hazkunde pertsonalerako, langile bakoitzak identifikatzen dituen arloetan, lan-merkatuko etnoestratifikazioa gainditzeko, eta beren bizitzak osotasunean berregin ahal izateko, bizitza jasangarriak, jatorriko herrialdean edo herrialde honetan, bakoitzak aukeratutakoaren arabera. Espazio kolektiboa indar gisa identifikatu zen lortu nahi ziren eraldatze-helburuak betetzeko, baina oraindik ez du behar adinako talde-kohesiorik lortu, beldurrak daude, zalantzak dauden elkarrekiko konfiantzari buruz, helburua lortzeko norberaren gaitasunari buruz, eta, gainera, zaintza-lanak barneko langile gisa egiten direnean denbora-aukera txikiak gelditzen dira. Identifikatutako ahulezia horiek ez dituzte, ordea, itxaropenak hozten; aitzitik, indartu egiten dute tailerretan parte hartu duten emakumezko langile etorkinen erresistentzia-jarrerak dakarren ahaleginaren eta sakrifizioaren ideia.

Azkenik, aipatu behar da zenbait gai, hala nola kulturartekotasuna, integrazioa, euskal gizarteari buruz dituzten pertzepzioak, eztabaiden parte izan zirela, baina ez zirela azterketarako aintzat hartu, ez zirelako diagnostiko honen xede.

ONDORIOAK

Adinak, hemen daramatzaten urteek, egoera administratiboak, prestakuntza-mailak, jatorriko herrialdeak eta larruazalaren koloreak eragina dute emakumezko langile etorkinek biziraupen-dinamikak birdefinitzeko birsortzen dituzten eraldatze-prozesu pertsonaletan eta kolektiboetan. Amaiera eman behar zaio gizarte eta ekonomia antolatzeko sistema honi; izan ere, emakume etorkinen bizitza kontsumitzeko -hitzez hitz- beharra du, belaunaldiz belaunaldi, Ipar Globalean gutxieneko ongizateari eusteko, globalizazioak nazioarte mailan inposatu zuen lanaren banaketa sexualaren bidez.

Hamarkadaz hamarkada Latinoamerikan aplikatu diren politika neoliberalak, Gure Amerikako Herrirentzako Aliantza Bolivartarraren (ALBA) porrota, Hego Amerikako demokrazia ahulak, ustelkeriaz eta segurtasunik ezaz blaituak, hala nola talde fundamentalista erlijiosoak finkatzea Errepublikako erakundeetan, konbinazio ezin hobea dira Estatuak bere betebeharrak nagusiak bertan behera uzteko: osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta justizia. Giza eskubideen urraketa sistemiko hori da Latinoamerikako emakumeen migrazioen motibazio nagusia; izan ere, hezkuntzarik, osasunik edo etxebizitzarik ez izatea, talde pandilleroen mehatxupean egotea, justiziarako eta erreparaziorako aukerarik ez dagoela ziurtatzea, hori guztia erabakigarria da Euskal Herrira iristen diren emakumeek migrazio-prozesuari ekiteko eta mendekotasunaren arreta sisteman sartzeko. Sistema hori politika publikoen bidez egituratua dago, eta politika horiek miseriako soldatak onartzen eta finantzatzen dituzte –mendekotasuna dutenei laguntzak emanda-, emakumezko langile etorkinak asteko 7 egunetan 24 orduz lanerako prest eta enplegatzailearen zerbitzura egon daitezten.

Emakume etorkinen kalteberatasun soziala hainbat arrazoirengatik gertatzen da, hala nola egoera administratiboa, baliabide ekonomikorik eza, familia-sarerik eza, bakardadea, diskriminazioa, beren genero, jatorri eta klaseari lotutako indarkeriak. Hori dela eta, imaginario sozialak “koitaduen” kutxatilan kokatzen ditu, edo, instituzioetan, berriz, “gizarte-zerbitzuentzako arazoak” kutxatilan, baina, egia esan, egoera horrek mugiarazten du erresistentzia beren gorputzetatik eta bizitzetatik, eta lanaren banaketa sexualaren zerbitzura jartzen dira nazioartean, beren seme-alabek bestelako bizimodua izateko helburu nagusia lortu nahian. Erresistenteak dira, sakrifizio-bideari ekiten baitiote, eta euren lehentasuna da familia-taldeak, lehen dimentsio kolektiboa, ondo egotea, “*haiek ondo badaude, ni ondo nago*”, kostua kontuan hartu gabe. Estatuaren abandonutik sortzen den erresistentzia horrek oinarrizko giza eskubideak mugatzen ditu, eta bat egiten du diagnostiko honetan parte hartu duten emakume etorkinen rol patriarkalek eta tradizionalak finkatutakoarekin, haientzat “emakumea”, “ama”, “leialtasuna” eta “sakrifizioa” kontzeptu banaezinak baitira, eta naturaltasun osoz onartzen dute seme-alaben hazkuntzan aiten erantzukizunik eza.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, hau da, Estatuaren utzikeria eta gizonen beren seme-alabekiko erantzukizunik ez hartzea, migrazioa ez da borondatezko eta aukeratutako prozesutzat hartzen, baizik eta betebeharrak gisa, “*hori zen egin nezakeen gauza bakarra*”, etxeetako oinarrizko ekonomia epeko kredituen eta zorren bidez mantentzen den sistema batean. Gorpil horrek emakumeen bizitza kontsumitzen du belaunaldiz belaunaldi, eta, horren ondorioz, emakumezko langile etorkin asko bidegurutzetara bizi dira beti, prekaritatearen (sakrifizio gisa ulertuta), edo mugitzeko askatasuna ematen duen bizitzaren artean, aisiarako, ikasteko, giza-harremanetarako, bikote-harremanetarako espazioarekin, herrialde honetako edozein langile bezala. Euskal Herrian, Zaintzen Euskal Sistema barneko lanean oinarritzen den bitartean, emakumezko langile etorkinen gorputzek eta bizitzek kontsumitzen jarraituko dute, bizitzeagatik duten zorra ordaintzeko.

Bizitzaren, zorraren eta sakrifizioaren arteko harreman horretan, igarotako denborak eta adinak eragin desberdina dute emakume etorkinen bizi-proiektuetan. Zorrari dagokionez, emakume etorkinek bakardade-, larritasun- eta estutasun-sentimenduak partekatzen dituzte, beldur bihurtzen direnak, eta

haren gainean egituratzen da gaur egungo eta etorkizuneko obedientziaren diziplina soziala. Familia-ekonomien zorrak emakumeen gorputzen esplotazioarekin eta bizitzarekin ordaintzen dira, dauden bizi-zikloaren arabera, eta horrek eragina du erabaki pertsonaletan. Helduenek, urte asko igaro ondoren, beren burua izan nahi dute kezka nagusi: *“orain nirekoia izan nahi dut pixka bat, eta nire buruan pentsatu”*. Gazteek, aldiz, sentitzen dute ezin dutela gozamen-unerik izan, beren betebeharra sakrifizioa egitea dela, *“ezin naiz han eta hemen jaten eta edaten ibili, eta nire seme-alabak han, bakarrik”*. Irakurketa horrekin beren gain hartzen dituzte, modu indibidualean eta pribatuan, sistema kapitalistaren egokitzapenak jatorrian eta helmugako gizarteetan, eta horrek zaildu egiten du kohesio kolektiboa, bizitzaren finantziario-eredu horri erantzuteko estrategia bateratua antolatzeko.

Eskema horretan, bizi-zikloek markatzen dute emakume etorkinen bizitza. Gehienek urte gutxiren buruan itzuliko zirela pentsatuta ekin zioten migrazio-prozesuari, baina bidean, familia-ekonomiari eusteko diru-beharrak handitu egin ziren, igarotako denboraren proportzioan. Hala, hiru urterako migratu zuten emakume askok ikusi dute hamarkada bat baino gehiago igaro dela, familiaren garapenean lagundu dutela, baina ez dutela inbertitu edo etorkizunerako aurreztu *“beti nago abiapuntuan”*. 50 urtetik gorako emakume horientzat, itzulerak aukera izateari utzi zion, batez ere helmugako herrialdean dituzten osasun-bermeen ondorioz, horrek esan nahi baitu zahartzaro pobretua izango dutela, gutxieneko diru-sarrerarekin eta bakarrik. Familia duten gazteen kasuan, datozen hiru urteen inguruan itzultzea espero dute, eta, seme-alaben ondora eramango dituen itzulera hori familia-proiektuekin zehazteko, prestakuntza prozesuei ekin behar diote merkataritza-kudeaketan eta -antolakuntzan ikasteko, ekintzailatza zapuztu ez dadin, eta, hala, belaunaldiz belaunaldi emakume pobretuen bizitzak kontsumitzen ari den amaierarik gabeko zorraren jokoan jarrai ez dezaten. Seme-alabarik gabeko neska gazteen kasuan, aukera da hemen bizitzea, merkatuaren etnoestratifikazioarekin haustea, beste espazio batzuetan beren lekua eskatzea, prestatzea eta horretan oinarrituta dauzkate indarrak, *“50 urte izatean ez dute adin horretako beren kideek dutena bezalako bizitza izan nahi”*.

Emakumezko langile etorkinek, familia enplegatzailleek ezartzen dizkieten denbora-mugak eta euren bizitzan eragiten duten kontrola gorabehera, uste dute guztiontzako berdintasun-eskubideen

estandarrak lortzeko behar den gizarte-eraldaketak zuzeneko aliatuen ekintza eta estrategia behar dituela, eta haiekin loturak estutu behar dituela. Talde horretan tokiko feministak eta Euskal Herriko Mugimendu Feminista ezinbestekotzat jo zituzten barneko lana, lan esklabo gisa definitua, desagertzearen gaia eraikuntza politiko eta sozialaren ardatz gisa jartzeko borrokan; izan ere, eskatzen den aldaketa hori erakunde politikoaren esku dago, non emakume etorkinek ez duten eraginik, eskubide politiko faltagatik, “*ez gaituzte boto gisa ikusten, ez digute entzuten*”.

Horren harira, emakumezko langile etorkinek zalantzan jarri zuten sektore feministek eta ezkerrekoek printzipio politikoaren eta zuzeneko senitarteko baten zaintza-beharraren artean duten hautabidea, eta, beraz, ideiekin koherentzia handiagoa eskatu zuten “*hitzak praktikara eramateko*”. Ekintza irmo eta eraginkorra bultzatu behar da, barneko lana desagerrarazteko euskal zaintza-sistemaren modalitate gisa, eta Agenda Feminista Komunaren lehentasun zehatza izan dadin, azpimarratuz eskakizun hori ez dela nahasi behar beren ordezkari izatearekin, “*ez dugu gure ordezkari hitz egitea nahi, gure ondoan jartzeko eskatzen diegu*”.

Erakundearen barruan, diagnostiko honek agerian utzi zuen indarrean jarraitzen dutela lan-ahalduntzeari, eskubideak eskuratzeari, laneratzeko laguntzari eta helburu eta proiektu pertsonalak lortzeko autonomia pertsonalari buruzko urteko programek. Maila kolektiboan, kide izate sentimendua nabarmendu zen, Malen Etxeko kide izatea, eskaintzen duen zerbitzu- eta laguntza-sarea edukitzea, bereziki laneratzeko laguntzan, indarra eta segurtasuna sortzen baititu. Plano kolektibo publikoan, parte hartzeko eta antolatzeko ereduak birpentsatu behar dira, bai eraginerako, bai ekintzaitza komunak eraikitzeko, migrazio-prozesuari, bizitza pertsonalari eta eraldaketa sozialari buruzko gogoeta egin ahal izateko.

Horrenbestez, barneko prestakuntza-guneak sortu behar dira, emakume etorkinak “*hemengo emakumeek nahi ez duten lana egitera etorri garela*” dioen irakurketa politikoa gainditzeko, beren errealitateak sistema kapitalistaren egiturazko krisiarekin lotzeko. Sistema kapitalista horretan, maila globaleko ugalketa sozialaren antolaketaren zuzeneko ondorioa da zaintza-zerbitzuetako emakumezko

langile etorkina izatea, non Hegoalde Globaleko emakumeen gorputzak eta bizitzak zaintzekin ordain dezaketen merkantzia diren Ipar Globaleko familientzat. Ulertu behar da familia-ekonomietako zorrak “**zorraren jokia**” kapitalismoak bizirauteko behar dituen doikuntza estrukturalen ondorio direla; makineria neoliberallean kontsumitutako bizitza horien inertzia geldiarazteko, emakume etorkinek boterea eman behar diote bere erresistentziaren indarrari; izan ere, pertsona gisa eratu ahal izatea bermatzen duten bitartekoak urratuz gero, nekez hitz egin daiteke eskubideez. Pentsamendu eta praxi feministatik indarkeriarik gabeko bizitza lortu behar da, beldurrik gabea, eskubide zibiletan eta politikoetan oinarrituta, eta miseriarik gabeko bizitza, pertsona guztientzako eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eskuratuta Euskal Herrian eta mundu osoan •

KONTSULTATUTAKO BIBLIOGRAFÍA

1. Bohoslavsky, Juan Pablo. Revista Derechos en Acción N^o5 .2020
2. Cavallero Luci y Gago Verónica, Una lectura feminista de la deuda: Vivas, libres y desendeudadas nos queremos”. Fundación Rosa de Luxemburgo 2019
3. Contreras Hernández Paola; Trujillo Cristoffanini Macarena. Desde las epistemologías feministas a los feminismos decoloniales: Aportes a los estudios sobre migraciones.
4. Contreras Paola y Alcades Vanessa. “Mujeres latinoamericanas procesos de agencia en contextos de vulnerabilidad. Papers, Revista de Sociología 2021.
5. Federeci Silvia, Gago Verónica- Cavallero Luci “ Quién le debe a quién?. Ensayos trasnacionales de desobediencia financiera. Ediciones: Tinta Limón 2021
6. Fraser Nancy, Bhattacharya TiThi, Arruzza Cinzia. Manifiesto de un Feminismo para el 99%. Herder 2019
7. Mosquera, I., Martín, U., Larrañaga, I. El cuidado informal en la Comunidad Autónoma del País Vasco Análisis de la Encuesta de Salud de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2013. Edición: Enero 2018
http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/enc_salud_2013_publicaciones/es_def/adjuntos/cuidados.pdf
8. Quijano, Aníbal. Colonialidad del poder, eurocentrismo y América Latina CLACSO, 2014.

Sanchez Celis, Raquel – Aierdi Urranza Xabier ¿Migración o desplazamiento forzado? Las causas de los movimientos de población a debate Cuadernos Deusto de Derechos Humanos Núm. 81 .2015

Txostenak

1. Esenciales y sin derechos, o cómo implementar el Convenio 189 de la OIT para las trabajadoras de hogar. Oxfam 2020
<https://cdn2.hubspot.net/hubfs/426027/Oxfam-Website/oi-informes/esenciales-sin-derechos-informe-completo.pdf>
2. EUSTAT. Adineko biztanleen panorama estatistikoa. 2021
https://www.eustat.eus/elementos/Panorama-estadistico-de-las-personas-mayores-2021/info019081_c.pdf

EMAKUME ETORKINEN ZOR AMAIEZINA

Profil sozio-demografikoa

Adina		
Non jaio zinen?		
Non bizi zara?		
Orain dela zenbat migratu zenuen?		Urtea -
Lehenago beste herrialderen batean bizi izan zinen?	Bai	Non?
	Ez	
Nola ikuste duzu zeure burua zure jatorriaren arabera	Afro-ondorengoa	
	Zuria	
	Mestizoa	
	Jatorrizko herrien ondorengoa	
	Amerikarra / hegoamerikarra	
	Beste	

Eskubide sozialak

Gaur egun lanean ari zara?	Bai	
	Ez	
Astean zenbat ordu lan egiten duzu?	Barneko langilea naiz	
	+ 40 ordu	- 40 ordu
Zenbat atsedeen-egun dituzu?		
Etxeko burua zara / zure familia zure mende dago?	Bai	
	Ez	

Baduzu seme-alabarik?	Bai	Zenbat?
	Ez	
Non bizi dira zure seme-alabak?	Nirekin	
	Nire herrialdean	Nire amarekin
		Beren aitarekin
		Beste batzuekin

Zure seme-alaben adinak		
Ikasketak	Oinarrizkoa	
	Bigarren hezkuntza	
	Goi-mailakoa / Unibertsitate ikasketak	
Interneta	Bai, wifia badut etxean	
	Bai, mugikorretik	
	Bai, wifia doan den lekuetan	
	Ez dut	
Etxebizitza	Etxebizitza alokatua dut	
	Etxebizitza dut	
	Lan egiten dudan lekuan bizi naiz	
Logela	Alokatua	
	Logela partekatua	
	Harrera-etxeetan	
Norekin bizi zara?	Bikotearekin / senarrarekin	
	Alabekin / semeekin	
	Familiakoak ez diren pertsonekin	
	Bakarrik bizi naiz	
Pandemia hasi denetik, nola sentitu zara?	Ondo, beti bezala	
	Itxaropentsu	
	Gauzak egiteko gogoz	
	Aktibo eta produktibo	
	Lasai	
	Beldurti / Nahigabetuta	
	Ez-seguru / Urduri	
	Triste / Deprimituta	
	Kezkati	
	Erantzukizun handiagoz kargatua	
	COVIDek ez zaitu kezkatzen	

Alarma eta Konfinamendu egoeran lan egin zenuen?	Si	No
Lan egin bazenuen, nola izan zen lan hura?	Lehen bezala	
	Ordu gutxiago eta soldata berdina	
	Ordu gutxiago eta soldata txikiagoa	
	Kalera bota ninduten	
	Barneko lana dut eta atera gabe egon nintzen, eta ez zidaten ordaindu	

2020 - 2021 urteetan zorpetu zinen?	Bai	Ez
Zorpetu bazinen, zergatik izan zen?		

2020 - 2021, azken urte honetan zein izan dira zuretzat zailtasun nagusiak?	Koronabirusarekin gaixotzeko beldurra	
	Beste gaixotasun batzuk harrapatzeko beldurra	
	Lan falta arazoak edo gaizki oraindutako lana izatea	
	Nire herrialdean zorrak ordaindu beharra	
	Hemen zorrak ordaindu beharra	
	Etxebizitarik ez izatea edo etxebizitza / logela ordaintzeko arazoak izatea	
	Nire familiarengandik urrun hiltzeko beldurra	
	Nire senitartekoak hiltzeko eta urrun egoteko beldurra	
	Nire familiari diru-bidalketarik ezin egin izatea	
Bizirauteko inolako laguntzarik ez izatea		

Zure soldata zertarako erabiltzen duzu?	Nire elikadura eta nire ikasketetarako	
	Nire seme-alaben elikadurarako eta ikasketetarako	
	Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko	
	Diru-bidalketak egiteko	
	Zorrak ordaintzeko	
	Aisialdirako, edertzeko	
	Beste	

Migratu zenuenean zorra egin zenuen	Bai	Ez
Norekin egin zenuen zorra?	BANKUAREKIN - Finantza erakundearekin	
	LAGUNEKIN - Familiakoekin	

Urte hauetan guztietan zure zorra	Haunditu da
	Murriztu da
	Ez dut zorrik
Zorrei dagokionez, nola sentitzen zara?	Larritzen nau
	Ondo, arazorik gabe
	Estutzen nau
	Ez-ulertua
Zenbateko zorra duzu?	Bakarrik
	0 - 3.000 €/dolar artean
	3.001 - 5.000 €/dolar artean
	5.001 - 10.000 €/dolar artean
	+10.000 €/dolar

Zorpetuta dagoen beste emakumerik ezagutzen al duzu?	Bai	Ez
Uste duzu emakume izateak eragina duela egiten duzun zorretan?	Bai	Ez
Zorrak emakume etorkinen bizitza baldintzatzen al du?	Bai	Ez

Zorrak nola baldintzatzen du emakume etorkinen bizitza?

Zure ustez, genero-indarkeriak (indakeria fisikoa, psikologikoa, hitzekoa, ekonomikoa, sexuala eta abar) gora egin zuen konfinamenduarekin?	Bai	Ez
Konfinamenduan genero-indarkeria motaren bat (fisikoa, psikologikoa, hitzekoa, ekonomikoa, sexuala eta abar) jasan zenuen?	Bai	Ez
Indarkeria-motaren bat jasan nuen	Bai	Ez
Ez, ondo sentitzen naiz honetan hitz egiten		
Jasandako indarkeria salatu zenuen?	Bai	Ez
Indarkeria jasaten duten edo jasan duten emakumerik ezagutzen al duzu?	Bai	Ez

Gurekin zerbait partekatzea gustatuko litzaizuke?

